

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Informazio Zentroa eta Enpresak Sortzeko Sarearen barruan lehenbiziko Ekintzailearentzako Arreta Gunea martxan jarri du

*Garapen Ekonomikoko Sailaren egoitzan dago bulegoa, eta bertatik ekintzaileei eta enpresei informazio-, dokumentuen izapidetze- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen zaizkie.*

Ostirala, 2019.eko urtarrilak 11

Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikoko Sailaren bitartez Informazio Zentroa eta Enpresak Sortzeko Sarearen (CIRCE) barruan lehenbiziko Ekintzailearentzako Arreta Gunea jarri du, eta zerbitzuen artean, enpresaren forma juridiko zehatz batzuk eratzeko eta martxan jartzeko izapideak telematikoki egitea ahalbidetuko da, inplikaturako erakunde guztiekin harremanetan egotean.

Momentuz, enpresariak lehen fase honetan Langile Autonomoen Erregimen Berezian alta eman dezake, baina xedea Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren laguntzarekin gaitu diren bulego hauetan informazio-, dokumentazioen izapidetze- eta aholkularitza-zerbitzuak ematearen bidez edozein enpresa motari hastapena eta amaiera ematen laguntzea da. Zerbitzu horiek ekintzaileei eta enpresei zuzenduta daude bereziki.

Ekintzailearentzako Arreta Gunea Iruñean dago, Garapen Ekonomikoko Sailaren egoitzan (Tomas Caballero parkea 1, Fuerte del Príncipe II eraikina, 4. solairua), eta Estatuko Administrazio Orokorrekin sinatutako hitzarmenaren emaitza da. Aurreikusita dago laster Ekintzailearentzako Arreta Gune gehiago zabaltzea.

Ekintzailetzarako eta enpresentzako laguntza eta sustapenari buruz informazio gehiago nahi duenak [www.navarraemprende.com](http://www.navarraemprende.com) helbidea eta [lotura](mailto:lotura) kontsulta ditzake.

Arreta Gune honetan RETAn alta eman nahi duenak aurretiaz hitzordua eskatu behar du 848 426 100 telefono-zenbakira deituta edo [asesoramientoempresas@navarra.es](mailto:asesoramientoempresas@navarra.es) helbide elektronikora idatzizko eskaera bidalita.

### Ekintzailearentzako Arreta Guneei buruz

[Ekintzailearentzako Arreta Guneek](#) misio bikoitza dute. Batetik, ekintzaileei enpresa-ekimenak definitzen laguntzea eta enpresaren lehenengo bost urteetan informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematea.

Bestetik, enpresa eratzeko izapide administratiboari hasiera ematea

Agiri Elektroniko Bakarraren bitartez.

Ekintzailearentzako Arreta Guneei buruzko informazio gehigarria [hemen](#):